

2024 - 2025 ikasturtea

Azkoitia

Eskolako
Agenda

2030



Familia estimatua,

Ikasturte hasierarekin bat eginez, aurtengo **Eskolako Agenda 2030** programa martxan jartzeko lehen urratsak ematen ari gara. Aurrez aurre gai berria dugu, **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**. Horrek esan nahi du, **11 Garapen Jasangarrirako Helburua** ezagutuko dugula: **HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK**. Oraingoan, bi ikasturtetako zikloari hasieran emango diogu. Lehenengoan diagnostikoa burutu eta bigarrenengoan, esku-hartze plana jarriko dugu martxan.

Hamaikagarren GJH honen xedea Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea da. Eta helmuga ezberdinen artean, garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzen du.

Herriko egoera aztertzeaz gain, ikastetxera nola goazen ere ezagutuko dugu: Azkoitiko kaleak eta errepideen egoera, oinezko bideak, bidegorri sarea, herritik kanpo irteteko ditugun garraio motak, garraio publikoa... Aldi berean, herritarren iritziak ere ezagutuko ditugu, sortzen diren iradokizunak jasoz.

Aurten egingo den diagnostikoan oinarrituta, hurrengo ikasturtean garatuko dugun esku-hartze plana ere antolatuko dugu. Ikasturtean zehar, zuen seme-alabekin batera, hausnartzeko aukera paregabea dugu. Burutuko diren ekintzen berri izango duzue eta zuen proposamenak ongietorriak izango dira. Animatzen zaituztegu zuek ere, zuen seme-alabekin batera, herri jasangarri baten alde borrokan bat egitera. **Inor atzean utzi gabe!**

Agur bero bat,

Eskolako Agenda 2030eko batzordea